

# IKAZKINTZA OIARTZUNEN

## Basoa ogi-iturri

### Abenduaren 15etik 22ra, Arditurriko Parketxean

*Ikazkintza jarduera garrantzitsua izan da oso gure basoetan duela hamarkada gutxi arte. Gizakia eta basoaren arteko harreman estuaren adierazle da.*



Abenduan zehar Arditurrin txondorra eraiki eta piztu nahi da, etxeak berotzeko Olentzerok nahiko ikatz izan dezan

Aintzinako ofizioa errekuperatzea eta etorkizunekoei kultur ondare honen oinordekotza uztea dugu helburu.

**Lan hau aurrera atera ahal izateko ezinbestekoa dugu herritar bolondresen laguntza.**

Laguntza mota askotarikoa izan daiteke: egur prestaketa (abenduaren 10-13 bitartean), txondorra bera eraikitzea (13-15), txondorra piztuta edukitzeko egurrak maiztasunez sartzea (15-22), bertan lanean ari direnentzat piztuta egongo den suaz baliatuta otorduak prestatzea (15-22), egunez eguneko aldaketen irudi grafikoak ateratzea...

Anima zaitezte eta prest zaudeten guztiak Arditurrira hurbildu eta Joxe Ramon Agirre “Marron”ekin harremanetan jar zaitezte abenduaren 10-22 bitartean.

Hurbiltzen zareten guztiok txondorraren magian murgiltzeko aukera izango duzuelakoan, mila esker aldez aurretik zuen lankidetzagatik